

Jarraian, Kutxabanken Administrazio Kontseiluaren osaera deskribatu da, baita haren Batzorde Delegatuena ere.

**1) Administrazio Kontseilua:**

**a) Gregorio Villalabeitia Galarraga jauna:**

- a. Administrazio Kontseiluko presidente exekutiboa. Izaera exekutiboa.
- b. Akziodunen Batzar Orokorrak izendatu zuen, lehen aldiz, 2014ko azaroaren 28an, eta berriz izendatu zuen 2018ko azaroaren 30ean.
- c. Ez du beste posturik, eta ez du beste jarduera esanguratsurik.
- d. 1977etik aurrera handiko karguak izan ditu hainbat kreditu erakundetan (Bizkaiko Bankua, Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Espainiako Banku Kooperatiboa, Argentario eta BBVA).

**b) Xabier Gotzon Iturbe Otaegi jauna:**

- a. Administrazio Kontseiluko lehen presidenteordea. Izaera exekutiboa.
- b. Akziodunen Batzar Orokorrak lehen aldiz 2012ko urtarrilaren 1ean izendatu zuen, Kutxa Banku Fundazioa akziodunak proposatuta, eta 2016ko ekainaren 30ean izendatu zuen berriz.
- c. 2008ko apiriletik (i) Finantza kudeatzailea eta finantza eta kontrol zuzendaria (1998-2008) izan da Euskaltel SA sozietatean (ii); horren aurretik, 8 urtez, HSBC-n hainbat saileko arduraduna izan zen (tartean, kapitalen merkatuko zuzendaria), eta (iii) hainbat alorretako askotariko erakundeetako administrazio kontseiluetako kide kargua izan du eta du.

**c) Joseba Mikel Arieta-araunabeña Bustinza jauna**

- a. Administrazio Kontseiluko kidea. Izaera dominikala.
- b. Akziodunen Batzar Orokorrak lehen aldiz 2012ko urtarrilaren 1ean izendatu zuen, Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa akziodunak proposatuta, eta 2016ko ekainaren 30ean izendatu zuen berriz.
- c. Bilbao Bizkaia Kutxako, Aurrezki Kutxako eta Bahitetxeako presidenteorde izan zen, eta hainbat sozietatetan beste kontseilari kargu batzuk izan ditu. Horietako sozietate batzuk azpiegitura handien proiektuei lotuta daude, eta Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganberako nazioartekotze zuzendaria da 2012tik. Lehendik ere erakunde horren zuzendari-kudeatzaile postua izan zuen, 2 urtez.

**d) Alexander Bidetxea Lartategi jauna:**

- a. Administrazio Kontseiluko kidea. Izaera dominikala.
- b. Akziodunen Batzar Orokorrak lehen aldiz 2012ko urtarrilaren 1ean izendatu zuen, Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa akziodunak proposatuta, eta 2016ko ekainaren 30ean izendatu zuen berriz.
- c. Zuzendari komertzial postua izan du hainbat sozietate industrialetan, eta Viuda de Sanz taldearen sozietate aholkulari/kontsulta ebazle batean analista

da. Horrez gain, ASCOBI (Bizkaiko Eraikitzailen eta Sustatzaileen Elkarte) elkarteko presidenteorde eta CEBEkeko (Bizkaiko Enpresarien Konfederazioa) Zuzendaritza Batzordeko kide izan da.

**e) Jesús Maria Herrasti Erlogorri jauna:**

- a. Administrazio Kontseiluko kidea. Izaera dominikala.
- b. Akziodunen Batzar Orokorrak lehen aldiz 2012ko urtarrilaren 1ean izendatu zuen, Kutxa Banku Fundazioa akziodunak proposatuta, eta 2016ko ekainaren 30ean izendatu zuen berriz.
- c. Hainbat kargu izan ditu Mondragon taldean, eta horietako batzuk taldeko entitate finantzario eta parafinantzariei lotuta daude. Laboral Kutxako artezkaritza kontseiluko kide eta Lagun Aro Mutuako presidente izan da, eta Mondragon taldeko erakunde gaietako ordezkaria, Mondragon Internazionalako presidentea eta Mondragoneko Kontseilu Orokorreko kontseilaria izan da.

**f) José Miguel Martín Herrera jauna:**

- a. Administrazio Kontseiluko kidea. Izaera dominikala.
- b. Akziodunen Batzar Orokorrak izendatu zuen, Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa akziodunak proposatuta (gaur egun, Kutxa Banku Fundazioa), lehen aldiz, 2013ko maiatzaren 29an, eta berriz izendatu zuen 2017ko uztailaren 28an.
- c. Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxako Administrazio Kontseiluko kidea izan da 1994tik 2004ra arte, eta 2012tik Kutxabankeko kontseilari izendatu zuten arte (azken etapan presidenteorde karguan). Horrez gain, azpiegiturak kudeatzen dituzten hainbat sozietatetako kontseilari izan da, eta hainbat jarduketa egin ditu etxebizitzaren eta hirigintzaren alorrean, hainbat arauzko proiektu sustatu ditu eta plangintzetan parte hartu du; horrez gain, bere lana egin du arkitekturaren, hirigintzaren eta ingeniariaren alorrean.

**g) María Victoria Mendia Lasa andrea:**

- a. Administrazio Kontseiluko kidea. Kontseilari koordinatzailea. Izaera independentea.
- b. Akziodunen Batzar Orokorrak izendatu zuen, lehen aldiz, 2012ko urtarrilaren 1ean, eta berriz izendatu zuen 2016ko ekainaren 30ean.
- c. Bere ibilbide profesionala kontu auditoretzaren sektorean garatu izan du beti, eta bereziki bideratu du sektore finantzarioa. PricewaterhouseCoopersen iparraldeko gunean sektore finantzarioaren ardura duen bazkide postua eskuratu zuen (1995-2010), eta lanean aritu den bitartean hainbat auditoretza egin ditu zenbait kreditu erakundetan, esaterako, Bilbao Bizkaia Kutxan, Laboral Kutxan, Banco Popularren, Banco Guipuzcoan, Caja Vital Kutxan eta abarretan, baita balio sozietate eta agentzietan eta beste entitate batzuetan ere.

**h) Josu de Ortuondo Larrea jauna:**

- a. Administrazio Kontseiluko kidea. Izaera dominikala.
- b. Akziodunen Batzar Orokorrak lehen aldiz 2012ko urtarrilaren 1ean izendatu

zuen, Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa akziodunak proposatuta, eta 2016ko ekainaren 30ean izendatu zuen berriz.

- c. 18 urtez hainbat lanpostu izan ditu lehen Bizkaiko Bankua izena zuenean, eta, besteak beste, eskualdeko eta Espainiako iparraldeko guneko delegazioko zuzendarioordearen lanpostua bete zuen, Bilbao Bizkaia Kutxako kontseilari izan zen, baita azpiegituren sektoreko hainbat proiektu kudeatzen zituzten beste sozietate batzuen ere. Hainbat argitalpen egin ditu.

**i) José Antonio Ruiz-Garma Martínez jauna:**

- a. Administrazio Kontseiluko kidea. Izaera independentea.
- b. Akziodunen Batzar Orokorrak izendatu zuen, lehen aldiz, 2012ko urtarrilaren 1ean, eta berriz izendatu zuen 2016ko ekainaren 30ean.
- c. Ia 10 urte eman ditu La Caixa taldeko hainbat postutan, Caixabank Frantziako zuzendari nagusia, taldeko arrisku berezien zuzendaria eta taldeko hainbat enpresatako kontseilaria izan da. Aurretik, 10 urtez egin zuen lan Indesban bankuan.

**j) Juan María Ollora Ochoa de Aspuru jauna:**

- a. Administrazio Kontseiluko kidea. Izaera dominikala.
- b. Akziodunen Batzar Nagusiak izendatu zuen, Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxak proposatuta (egun Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxa Banku Fundazioa), lehen aldiz, 2013ko urtarrilaren 31n, eta berriz izendatu zuen 2017ko maiatzaren 3an.
- c. Bere ezagutza finantzarioei lotutako hainbat kargu izan ditu, eta horien artean nabarmentzekoak dira irakasle lanak, Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialeko Ikerketa Zerbitzuko ekonomista postua, eta Euskadiko Kontseilu Orokorreko Ekonomia eta Ogasun kontseilari postua. Nazioarteko Condesa taldeko idazkari nagusia izan da, eta, besteak beste, hainbat ikerketa argitaratu ditu, horietako asko gai ekonomikoari lotutakoak.

**k) Francisco Javier García Lurueña jauna:**

- a. Kontseilari delegatua. Izaera exekutiboa.
- b. Akziodunen Batzar Orokorrak izendatua 2015eko maiatzaren 28an.
- c. Ibilbide profesional luzea izan du Kutxabanken, eta, aurretik, BBKn. Esperientzia estrategikoa du banku negozioaren orientazioari buruz, bereziki egungo testuinguruan.

**l) Antonio Villar Vitores jauna:**

- a. Administrazio Kontseiluko kidea. Izaera independentea.
- b. Akziodunen Batzar Orokorrak izendatua 2016ko ekainaren 30ean.
- c. Esperientzia profesional handia du sektore finantzarioan, bereziki finantzazioan eta analisisan, arriskuen jarraipenean eta kontrolean, eta hasieraen lurraldeko zuzendaritzan egin zuen lan, eta gero Banco Guipuzcoanoren egoitza zentrolean Arriskuen Jarraipen eta Kontrol Saileko zuzendari moduan aritu zen. Besteak beste, Espainiako Bankuko Arriskuen Informazioaren Zentraleko informazioaren arduraduna eta kudeatzailearen, eta Fitch eta Moody's rating enpresen arrisku alorreko ordezkari izan zen,

bankuen edo titulazioen ratingak lortzeko.

**m) Roxana Meda Inoriza andrea:**

- a. Administrazio Kontseiluko kidea. Izaera independentea.
- b. Akziodunen Batzar Orokorrak izendatua 2016ko ekainaren 30ean.
- c. 20 urteko esperientzia profesionala du, PriceWaterhouseCoopers nazioarteko auditoretza firman hartutakoa auditoretza zuzendari moduan. Esperientzia garrantzitsua eta kontrastatua du erakunde finantzarioetan, auditoretzan.

**n) María Manuela Escribano Riego andrea:**

- a. Administrazio Kontseiluko kidea. Izaera independentea.
- b. Akziodunen Batzar Orokorrak izendatua 2016ko ekainaren 30ean.
- c. Euskal Herriko Unibertsitatean Zientzia Ekonomikoen doktoretza eskuratu zuen, Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna da (espezialitatea, ekonomia kuantitatiboa), Euskal Herriko Unibertsitatetik . 2009ko ekainaren eta 2012ko abenduaren artean Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailean egon zen Zerga Administrazioari zuzendari gisa, eta azken bi urteak Administrazio eta Fidantza kontseilariorde moduan eman zituen.

**o) Jorge Hugo Sánchez Moreno jauna:**

- a. Administrazio Kontseiluko kidea. Izaera dominikala.
- b. Akziodunen Batzar Nagusiak izendatu zuen, Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxa Banku Fundazioak hala proposatuta, 2017ko uztailaren 28an.
- c. Esperientzia profesional handia du aholkularitza fiskaleko alorrean, hala hasi baitzen ibilbidearen hasieran, ardogintza jarduera industrialaren zuzendari bateko zuzendari fiskal moduan, eta, azkenik, abokatua izan da bere bulegoan. Funtsean, merkataritzako nazioarteko zuzenbidean, sozietateen zuzenbidean eta zergen zuzenbidean oinarritu da.

**p) José Julio Zatón Salazar jauna:**

- a. Administrazio Kontseiluko kidea. Izaera independentea.
- b. Akziodunen Batzar Orokorrak izendatua 2018ko irailaren 6an.
- c. 30 urte baino gehiago eman ditu hainbat postutan, besteak beste Grupo Santanderren, Euskadiko, Nafarroako eta Errioxako arriskuen zuzentzaile izan baitzen, Euskadiko Enpresa Handien zuzendari eta Kataluniako arrisku zuzendari ere bai.

**2) Batzorde exekutiboa:**

- a) Gregorio Villabeitia Galarraga jauna (presidentea): Administrazio Kontseiluak izendatu zuen 2014ko azaroaren 28an, eta 2018ko azaroaren 29an izendatu zuen berriz (berritzearen eragin data, 2018ko azaroaren 30a).
- b) Xabier Gotzon Iturbe Otaegi jauna: Administrazio Kontseiluak izendatu zuen 2012ko urtarrilaren 2an, eta 2016ko ekainaren 30ean izendatu zuen berriz.
- c) Joseba Mikel Arieta-araunabeña Bustinza jauna: Administrazio Kontseiluak izendatu zuen 2012ko urtarrilaren 2an, eta 2016ko ekainaren 30ean izendatu zuen berriz.
- d) José Antonio Ruiz Garma Martínez jauna: Administrazio Kontseiluak izendatu zuen

2014ko martxoaren 27an, eta 2016ko ekainaren 30ean izendatu zuen berriz.

- e) Juan Maria Ollora Ochoa de Aspuru jauna: Administrazio Kontseiluak izendatu zuen 2013ko otsailaren 7an, eta 2017ko apirilaren 27an izendatu zuen berriz (berritzearen eragin data, 2017ko maiatzaren 3a).
- f) José Miguel Martín Herrera jauna: Administrazio Kontseiluak izendatu zuen 2013ko maiatzaren 30ean, eta 2017ko uztailaren 29an izendatu zuen berriz (berritzearen eragin data, 2018ko uztailaren 28a).
- g) Francisco Javier García Lurueña jauna: Administrazio Kontseiluak izendatu zuen 2015eko maiatzaren 28an.
- h) Jorge Hugo Sánchez Moreno jauna: Administrazio Kontseiluak izendatu zuen 2017ko apirilaren 27an (egiaz sartzeko data: 2017ko uztailaren 28a).

**3) Arriskua konttrolatzeko Batzordea:**

- a) Antonio Villar Vitores jauna (presidentea): Administrazio Kontseiluak izendatu zuen 2016ko ekainaren 30ean.
- i) Juan Maria Ollora Ochoa de Aspuru jauna: Administrazio Kontseiluak izendatu zuen 2014ko urriaren 28an, eta 2017ko apirilaren 27an izendatu zuen berriz (berritzearen eragin data, 2017ko maiatzaren 3a).
- b) María Victoria Mendia Lasa: Administrazio Kontseiluak izendatu zuen 2014ko urriaren 28an, eta 2016ko ekainaren 30ean izendatu zuen berriz.
- c) Joseba Mikel Arieta-araunabeña Bustinza jauna: Administrazio Kontseiluak izendatu zuen 2014ko urriaren 28an, eta 2016ko ekainaren 30ean izendatu zuen berriz.
- d) José Miguel Martín Herrera jauna: Administrazio Kontseiluak izendatu zuen 2014ko urriaren 28an, eta 2017ko ekainaren 29an izendatu zuen berriz (berritzearen eragin data, 2018ko uztailaren 28a).
- e) Jorge Hugo Sánchez Moreno jauna: Administrazio Kontseiluak izendatu zuen 2017ko apirilaren 27an (egiaz sartzeko data: 2017ko uztailaren 28a).
- f) Jorge Hugo Sánchez Moreno jauna: Administrazio Kontseiluak izendatu zuen 2018ko apirilaren 26an (egiaz sartzeko data: 2018ko irailaren 6a).

**4) Auditoretza eta Betetze Batzordea:**

- a) María Victoria Mendia Lasa: Administrazio Kontseiluak izendatu zuen 2012ko urtarrilaren 2an, eta 2016ko ekainaren 30ean izendatu zuen berriz.
- b) Jesús María Herrasti Erlogorri jauna: Administrazio Kontseiluak izendatu zuen 2013ko maiatzaren 30ean, eta 2016ko ekainaren 30ean izendatu zuen berriz.
- c) Roxana Meda Inoriza andrea (idazkaria): Administrazio Kontseiluak izendatu zuen 2016ko ekainaren 30ean.
- d) María Manuela Escribano Riego andrea: Administrazio Kontseiluak izendatu zuen 2016ko ekainaren 30ean.
- g) Jorge Hugo Sánchez Moreno jauna: Administrazio Kontseiluak izendatu zuen 2018ko apirilaren 26an (egiaz sartzeko data: 2018ko irailaren 6a).

**5) Izendapen Batzordea:**

- a) María Manuela Escribano Riego andrea (presidentea): Administrazio Kontseiluak izendatu zuen 2016ko ekainaren 30ean.
- b) Alexander Bidetxea Lartategi jauna (idazkaria): Administrazio Kontseiluak izendatu zuen 2014ko urriaren 28an, eta 2016ko ekainaren 30ean izendatu zuen berriz.
- c) Josu de Ortuondo Larrea jauna: Administrazio Kontseiluak izendatu zuen 2014ko urriaren 28an, eta 2016ko ekainaren 30ean izendatu zuen berriz.
- d) José Antonio Ruiz Garma Martínez jauna: Administrazio Kontseiluak izendatu zuen 2014ko urriaren 28an, eta 2016ko ekainaren 30ean izendatu zuen berriz.

## 6) Soldaten Batzordea:

- a) Roxana Meda Inoriza andrea (presidentea): Administrazio Kontseiluak izendatu zuen 2016ko ekainaren 30ean.
- b) Antonio Villar Vitores jauna: Administrazio Kontseiluak izendatu zuen 2016ko ekainaren 30ean.
- c) Alexander Bidetxea Larategi jauna: Administrazio Kontseiluak izendatu zuen 2016ko ekainaren 30ean.
- d) Josu de Ortuondo Larrea jauna (idazkaria): Administrazio Kontseiluak izendatu zuen 2014ko urriaren 28an, eta 2016ko ekainaren 30ean izendatu zuen berriz.

## DIBERTSITATEA

### A) Generoaren araberako banaketa

Kutxabankeko Administrazio Kontseiluan ordezkaritza txikiena duen sexua emakumezkoena da, hamasei (16) kide direlako eta hiru (3) direlako emakumezkoak. Beraz, emakumezkoak gaur egun Administrazio Kontseiluko kideen % 18,75 dira.

Batzorde delegatuei dagokienez, honako hauek lirateke datuak:

| Batzordea                         | Kide kopurua | Emakume kopurua | Emakumeek dituzten karguak         |
|-----------------------------------|--------------|-----------------|------------------------------------|
| Batzorde exekutiboa               | 8            | 0               | -                                  |
| Izendapen Batzordea               | 4            | 1               | Presidentea                        |
| Soldaten Batzordea                | 4            | 1               | Presidentea                        |
| Auditoretza eta Betetze Batzordea | 5            | 3               | Lehendakaria<br>Idazkaria<br>Kidea |
| Arriskua kontrolatzeko Batzordea  | 7            | 1               | Kidea                              |

### B) Adinaren araberako banaketa

Kutxabanken Administrazio Kontseiluko batez besteko adina, 2018 ekitaldia itxi zenean, 61 urte ingurukoa zen. Gizonen eta emakumeen arteko banaketari dagokionez, gizonen adina, batez bestean, 62 urtekoa zen 2018 amaitzean, eta emakumeena 60 urtekoa.

| Adina                     | < 30 urte | 30 eta 50 urte<br>artean | > 50 urte |
|---------------------------|-----------|--------------------------|-----------|
| Kontseilarien<br>ehunekoa | % 0,00    | % 12,50                  | % 87,50   |

Jarraian jaso dira Cajasurern Gobernu Organoen dibertsitateari lotutako beste datu batzuk:

### **DIBERTSITATEA**

#### **C) Generoaren araberako banaketa**

Cajasur Bancoko Administrazio Kontseiluan ordezkaritza txikiena duen sexua emakumezkoa da, zortzi (8) kide direlako eta bakarra (1) delako emakumezkoa. Beraz, emakumezkoak gaur egun Administrazio Kontseiluko kideen % 12,5 dira.

Batzorde delegatuei dagokienez, honako hauek lirateke datuak:

| Batzordea                              | Kide<br>kopurua | Emaku<br>me<br>kopurua | Emakumeek dituzten<br>karguak |
|----------------------------------------|-----------------|------------------------|-------------------------------|
| Batzorde exekutiboa                    | 4               | 0                      | -                             |
| Izendapenen eta<br>Soldaten Batzordea  | 3               | 0                      | -                             |
| Auditoretza<br>Batzordea               | 3               | 1                      | Idazkaria                     |
| Arriskua<br>kontrolatzeko<br>Batzordea | 3               | 1                      | Presidentea                   |

#### **D) Adinaren araberako banaketa**

Cajasur Bancoren Administrazio Kontseiluko batez besteko adina, 2018 ekitaldia itxi zenean, 68 urte ingurukoa zen. Gizonen eta emakumeen arteko banaketari dagokionez, gizonen adina, batez bestean, 67 urtekoa zen 2018 amaitzean, eta emakumeena 73 urtekoa.

| Adina                     | < 30 urte | 30 eta 50 urte<br>artean | > 50 urte |
|---------------------------|-----------|--------------------------|-----------|
| Kontseilarien<br>ehunekoa | % 0,00    | % 0,00                   | % 100     |

